



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

# Ekintzen bilduma **2006**

## Bilan d'activités

**Biltzar nagusia Itsasun  
2007ko martxoaren 3an  
Assemblée générale à Ixassou  
3 mars 2007**



## **AURKIBIDEA – SOMMAIRE**

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa /  
*Organisation interne de l'Institut culturel basque.....3*
  
- Euskal kultur erakundeak zuzenki kudeatu ekintzak :  
Euskarazko bertsioa / Version basque ..... 5  
  
*Actions propres de l'Institut culturel basque :*  
*Frantsesezko bertsioa / Version française.....28*
  
- Partaide diren elkarteek kudeatu ekintzak /  
*Actions émanant des associations culturelles partenaires....52*
  
- Diru konduak / *Rapport financier .....78*

## Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa Organisation interne de l'Institut culturel basque

\* \_ \* \_ \* \_ \* \_ \*

### **BILTZAR NAGUSIA :**

249 kidez osatua da (103 elkarte eta 146 herri, euskal kultura sustengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

### **L'ASSEMBLEE GENERALE :**

Elle est composée de 249 membres (qui représentent 103 associations et 146 communes adhérentes au Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque) auxquels il convient d'ajouter les membres de droit et les personnalités qualifiées.

### **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA :**

**Euskal elkarteen  
ordezkariak :**

Tiitto AGUERRE, Frantxua COUSTEAU, Paxkal INDO, Peio IRACHABAL (puis Sylvie LACAU),  
Serge LABESCAU, Agus HERNAN, Philippe MAYTE, Michel ORONOS.

### **LE CONSEIL D'ADMINISTRATION :**

**Les représentants du collège  
des associations adhérentes :**

### **Legezko ordezkariak :**

### **Les membres de droit :**

Estatua :

- Marc CABANE (prefeta / préfet),
- Pierre-André DURAND (suprefeta / sous-préfet) puis Jean-Jacques CARON
- François BROUAT, Jean-François SIBERS (DRAC).

Etat :

Akitania lurraldeko kontseilua :

- Jean-Joseph LISSAR (Lurraldeko kontseilaria / Conseil régional),
- François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria / Conseiller régional),

Conseil régional d'Aquitaine :

Pyrénées-Atlantiques-etako Kontseilu orokorra :

- Max BRISSON (Biarritzeko kontseilari orokorra / Conseiller général de Biarritz).
- Bernard GIMENEZ (Angeluko kontseilari orokorra / Conseiller général d'Anglet),

Conseil général des P.A. :

Euskal kultura sostengatzen  
duen Herriarteko sindikata :

- Ramuntxo CAMBLONG (Angeluko hautetsia / Conseiller municipal d'Anglet),
- Philippe GOYETCHE (Larresoroko hautetsia / Conseiller municipal de Larressore).

Syndicat intercommunal pour  
le soutien à la culture basque :

### **Pertsonalitate kalifikatuak :**

Jean-Louis DAVANT, Mikel ERRAMOUSPE,  
Xabier ITZAINA, José-Maria MUÑO-A-GANUZA.

### **Personnalités qualifiées :**

### **Beti gomituak :**

Erramun BACHOC (sociolinguiste), Jean-Claude IRIART (Directeur de l'office public euskara)

### **Invités permanents :**

### **Konduetarako komisarioa :**

Michel FAGOAGA

### **Commissaire aux comptes :**

**BULEGOA :**

**LE BUREAU :**

Lehendakaria / président :.....Mikel ERRAMOUSPE

Lehen lehendakariordea / 1<sup>er</sup> vice-président :.....François MAITIA

Bigarren lehendakariordea / 2<sup>ème</sup> vice-président :.....Philippe MAYTE

Diruzaina / trésorier :.....Frantxua COUSTEAU

Diruzainordea / Trésorier-adjoint :.....Philippe GOYETCHE

Idazkaria / secrétaire :.....Serge LABESCAU

Idazkariordea / Secrétaire-adjoint :.....Bernard GIMENEZ

**TALDE PROFESIONALA :**

**L'EQUIPE PROFESSIONNELLE :**

Zuzendaria / directeur :.....Pantxo ETCHEGOIN

Zuzendariordea / directeur-adjoint :.....Daniel LANDART

**Sail arduradunak / Responsables sectoriels :**

- ✓ Etnologia - ondarea / Ethnologie - patrimoine :.....Terexa LEKUMBERRI
- ✓ Euskarazko kultur animazioak / Animations culturelles en langue basque :.....Pantxika MAITIA
- ✓ Kultura bitartekaritza / Médiation culturelle :.....Jakes LARRE
- ✓ Ikusgarrigintza / Spectacle vivant :.....Frank SUAREZ

**Idazkaritza / informazioa / itzulpenak  
Secrétariat / information / traduction :**

Maddalen  
ERROTABEHÉRE-DUPUY  
(3 jours par semaine)

Frederik BERRUET

Julie BERCETCHE  
(2 jours par semaine)



Euskal kultur erakundeak  
zuzenki kudeatu ekintzak

*Euskarazko bertsioa*

## Ikusgarrigintza

### SORKUNTZA – KULTURA TRUKAKETAK

#### **« Hosto gorri hosto berde » sorkuntzaren berriz emateko laguntza**

Biarritzeko FAL kolegioa – Pausuko Les Faisans gela – 2006ko martxoaren 2tik 23ra

Juan-Kruz Igerabideren olerkiaren musikatzea eta gaurkotzea.

*Sentsibilisazio lana FAL kolegioko 4.eko ikasle elebidunei buruz, egilearen, Miren Aranburu kantariaren eta Jean-Louis Hargous musikariaren presentziarekin, martxoaren 25ean, ikusgarria eman aitzin Bi Harriz Lau Xori festibala kari.*

Ikusgarria lantzeko laguntza Théâtre des Chimères-eko Guy Labadens-en aholkuekin eszenaratzeari buruz.

*Partaidetza : FAL kolegioa – Distira elkarte*

#### **« Euskal Herrian bizi eta eraiki » egonaldia**

Bastida – maiatzaren 29 eta 30ean – 2006ko urriaren 4tik 7ra

CAUE-k eta Euskal kultur erakundeak Euskal Herriko etxebizitzaz eta arkitekturaz abiatu gogoetaren jarraitzeko, Bordeleko Les Imprévisibles kolektiboko eta Euskal Herriko artista batzuei gai hortaz gogoetatzea galdetu zaie.

Zazpi musikari, dantzari eta bertsularik egonaldi bat egin dute Bastidan. Topaketak izan dira tokiko biztanleekin eta Cantau Lizeoko ikasleekin.

Egitasmoaren ardatz nagusiak :

- “Bizilekuari zentzu bat eman” mintzaldia Inessa de Gaxen gelan - urriaren 5ean
- Performantza ibiltaria herrian gaindi – urriaren 7an  
Sorkuntza artistikoa herriko tokien arabera inprobisatua
- Erakusketa – Darrieux etxean – urriaren 7an  
Artisten itxurak eta tokien marrazki topografikoak Cantau Lizeoko Topografia saileko Arte Aplikatuaren ikasleek eginik.

*Partaidetza : CAUE – Bastidako Herriko Etxea – Cantau Lizeoa*

### **Formakuntza bat georgiar polifoniei buruz eta erreperorio baten sortzea**

Donapaleu – 2006ko uztailaren 3, 4 eta 5ean

Georgiarekilako trukaketa egitasmoaren segida Maddi Oihenart, Céline Mounole, Kattalin Indaburu, Philippe Albor eta Amikuze aldeko koru kide ezberdinen parte hartzearekin. Amikuzeko koru kideek eta musika eskoletako ikasle batzuek georgiar polifoniak landu dituzte, 1993az geroztik georgiar polifonien erreperorio aberatsaren ikertzen eta transmititzen ari den Marani taldeko Craig Schaffer-ekin.

Kantariak georgiar polifoniaz, beren kantuez eta ohiko euskal kantuz osatu erreperorio bat osatu dute, hiru ahotsetan georgiar kantu teknikaren arabera emanak.

Kantariak erreperorio hori irailan aurkeztu dute Georgian eta Euskal Herrian.

*Partaidetza : Baxe Nafarroako Lurralde Eszena (Garazikus – Elgarri) – Marani elkarte*

### **Tokia Théâtre konpainiaren “Kautera” sorkuntzaren laguntzea**

Maule – irailaren 4, 5 eta 6an

Kautera sorkuntzaren segitzea formakuntza eta aholku ikastaldi baten bidez osagai piroteknikoen muntatzeko.

### **M.A.K. hip-hop taldearen bideo-klipa eta parte hartzea B. Etxepare lizeoan**

Eta bideo sorkuntza bat taldearen bigarren diskoaren promozioa egiteko. Bideo-klipetik abiatuz, Bordeleko Ikasleen Festibalean aurkeztua izanen den ikasleen sorkuntza baten segitzea.

*Partaidetza : B. Etxepare lizeoa*

## **HEDAPENA**

**“Biharko” CD-DVD-a (Euskal Herria / Sao Tome)** – aurkezpena Elkar-en (Baiona) – otsailaren 14an

2002 eta 2005 artean, Lagunarte Konpainiako eta Sao Tomé eta Príncipeko musikariak hiru aldiz elkartu dira Sao Tomen eta Euskal Herrian.

“Biharko” CD-DVD-ak abentura hori kontatzen du.

*Partaidetza : Musiques de Nuit Diffusion*

### **Jean-Louis Hargous eta Miren Aranbururen « Hosto gorri hosto berde »**

Biarritz – martxoaren 25ean

Juan-Cruz Igerabideren poesiaren eszenaratzea eta musikan ezartzea modu berri batean. Ikusgarria « Le Colisée » gelan « Bi Hariz Lau Xori » festibala kari.

*Partaidetza : Biarritz Culture*

### **Anari – Gari – DJ Makala – Atabal – maiatzaren 5ean**

Euskal Autonomia Erkidegoko musika taldeen kontzertua.

*Partaidetza : Biarritzeko Atabal*

**Le Jabron Rouge konpainia eta Agnès Cerlot – Gernika – maiatzaren 20an**

“Super Seme” haurrendako ikusgarria Elai Alai antzokian.

*Partaidetza : Gernika kultura zentroa - Garazikus*

**“Harilka, du fil à la pâte » - Dariola elkartea – Koldo Amestoy**

Baiona eta Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala – ekainaren 13 eta 14an  
Besteak beste, margolariaren, musikariaren, txokolate-egilearen eta ipuin-  
kontalariaren arteak nahasten dituen ikusgarri hau ibilbide bat da maia, azteka eta  
euskal leiendek ilustratzen dutena.

Bi emanaldi, bat euskaraz eta bestea frantsesez.

*Partaidetza : Baiona eta Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala*

**Maddi Oihenart – Céline Mounole – Kattalin Indaburu – Philippe Albor**

**Euskal kantuak eta georgiar polifoniak.**

***Euskal Herrian***

- ▶ Irailaren 22an Luna Negran “Euskal Herriko emazteen ahotsak” – Baionan
- ▶ Irailaren 23an Frantziskanoen Kaperan – Donapaleun
- ▶ Urriaren 15ean Abbadiako Jauregian – Hendaian
- ▶ Azaroaren 25ean Biarritzeko Mediatekan

***Kontzertuak Georgian***

- ▶ Irailaren 27 eta 29an - Tbilissiko georgiar polifonien 3. topaketak
- ▶ Irailaren 28an – Telavi (Kakheti eskualdean)
- ▶ Irailaren 30ean – Gori (Kartli eskualdean)
- ▶ Urriaren 1ean – Rustavi

*Partaidetza : Quartier Latin elkartea – Baxe Nafarroako Lurralde Eszena (Garazikus,  
Elgarri) – Hendaiaiko kultura elkartea – Hendaiaiko Herriko Etxea – Biarritzeko  
Mediateka – Tbilissiko Kontserbatorioa (Georgia).*

**Théâtre du Rivage, Gaël Domenger, Beñat Achiary – Getxo – urriaren 6an**

Batekmila ikusgarria « Iparra galdu gabe » kultura astearen kariatara.

*Partaidetza : Getxoko Udala*

**Théâtre des Taffurs eta Kirmen Uribe – Angeluko Mediatekan – Urriaren 17an**

“Bitartean heldu eskutik – En attendant donne-moi la main”

Antzerki-olerki ikusgarria frantsesez eta euskaraz Kirmen Uribe idazlearen parte  
hartzearekin, Translatines festibalaren 26. edizioaren estreinatze kari.

*Partaidetza : Angelu Herriko Etxea – Les Translatines*

**Maialen Errotabehere – Luna Negra – azaroaren 10ean**

Maialenen kontzertua "Euskal Herriko emazteen ahotsak" operazioaren kariatara.

*Partaidetza : Quartier Latin elkarte*

**Traboules konpainia – « Tzimi » ikusgarria – Bilbao – azaroaren 11n**

Ikusgarriaren euskarazko bertsioaren bi emanaldien programatzea  
Bilboko 25. Nazioarteko Txotxongilo Festibalean.

*Partaidetza : Bilboko Nazioarteko Txotxongilo festibala.*

**Théâtre du Rivage, Gaël Domenger, Beñat Achiary – Galdakao – abenduaren 1ean**

Batekmila ikusgarria Torrezabal kultur etxean Ostera festibalaren 7. edizioaren  
kariatara, Topaguneak 8 ikusgarri programatu ditu Bizkaian zehar bi hilabetez.

*Partaidetza : Topagunea*

## « Euskal munduak » erakusketa


« Batekmila – Euskal munduak » multimedia erakusketa ibiltariaren prestaketa  
<http://batekmila.eke.org>

Batekmila - Euskal munduak" Euskal kultur erakundeak ekoiztu multimedia erakusketa ibiltari berria prestaketa lanak aitzinatu dira 2006. urtean. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea egitasmo honen partaidea da.

Erakusketaren helburua publiko desberdinei kultura unibertso bat ezagutaraztea da, euskal kulturarena. Bertan norberak bere burua aurkituko du, bere jatorria, bere baitako esperimentuak eta bere sinesmenak edozein izanik ere.

2006an burutu diren lanak :

- Multimedia alorrean berezitua den Anamnesia (Estrasburgo) enpresa hautatua izan da erakusketaren eszenografia eta ekoizpenaren bururaino eramateko ;
- Irudien eta bideoen bilketa abiatua izan da alor ezberdinetako partaideengan ;
- Isa Suarez-ek ekoiztu bi bideo-sorkuntza lagunduak izan dira ; bata euskaldunen presentziaz Argentinan, bestea euskaldunen bizipenetaz Uruguaien. Biak erakusketan baizik ez dira ikusgai izanen (lau hizkuntzatan) ;
- EKE-k galdeginik, Evelyne Casemajor-ek Eduardo Chillida eta Jorge Oteiza zizelkarien ibilbideak aztertu ditu bi bideoen bidez. Lan hori lau hizkuntzatan ikusten ahalko da erakusketaren modulu batean ;
- Bilboko Euskararen Etxearekin finkatu partaidetza bati esker, zentro horrek daukan euskarari buruzko bi aplikazio informatiko agertuko dira erakusketan.



## Animazioak haurrentzat

### ▣ « BAT BIGA HIRU » saila – Irakurketa, idazketa Hiru saretako ikasleekin eramana izan da

Euskal kultur erakundeak kudeatzen duen **Batekmila** egitasmoaren barnean eramana izan den « **Bat biga hiru** » sailak arrakasta handia ukan du, orotara 30 ikastegitara hedatu baita.

Lehenik, ikastoletako eta eskola publikoko eta pribatuko 600 haurrek parte hartu dute. Haur bakoitzak hiru lan bazituen egiteko, idatzizkoa, apainketakoa eta gogoz ikastekoa.

Gero, haur guzien lanak bildu ondoan, erakusketa handi bat apailatua izan da eta publikoak ikusi ahal izan du Luhusoko kultura salan martxoaren 25ean eta 26an.

Eskolarteko elgarretaratzea larunbat arratsaldean iragan da eta 400 jende bidu dira, ttipi eta handi. Eskola andana batek zerbait prestatua zuen eta orotara 120 haurrek zerbait eskaini dute, dela kantu, dela antzerkitxo, Oxobik eta Daniel Landartek euskaratu alegiak oinarritzat hartuz.

Arratsaldea biziki ederki bururatu da : Haurrock taldearen inguruan plantatu dira 120 haurrak eta denek batean eman dituzte Philippe Alborek musikatu hiru alegia.

### ▣ IRAKUR-TRUKA saila Euskaraz irakurtzeko nahikariaren garatzea

Baionako, Kanboko eta Uztaritzeko ikastolek proposaturik Euskal kultur erakundeak « Batekmila » bere egitarauan sartu du « **Irakur Truka** » egitasmoa, euskaraz irakurtzeko nahikaria sortarazi nahiz.

#### **Lehen urratsa : 10 idazle irakurtzeko**

Baionako, Kanboko eta Uztaritzeko ikastolako irakasleak elkartu dira hamar idazlen lanak hautatzeko eta beren 9-10, 10-11 urteko ikasleei irakurarazteko.

**Bigarren urratsa : Ikasleen eta idazleen arteko topaketa** martxoaren 2an iragan da Uztaritzeko Lapurdi Zentroan.

Idazleak haurrekin bildu dira. Hauek ziren : Antton Kazabon, Daniel Landart, Juan Kruz Igerabide, Iñaki Zubeldia, Pantxoa Etchegoin (itzultzailea) eta Marko Armspach (marraskilaria).

Ikas pedagogia zerbitzuak eta Euskal Idazleen Elkarteak beren laguntza ekarri die ekitaldiari.

### ▣ « Errobi mintzo » hiru urteko egitasmoa

Duela hiru urte abiatu programa elebidunaren azken urtea zen hau. Programa hau MIFEN eta EKE-k eraman dute partaidetza osoan, Kanboko 3 eskoletako haurrekin (pribatua, publikoa eta ikastola) uraren gaia lantzeko asmoz. Aurtengo animazio guziak otsailean eta martxoan iragan dira. Eta lan honen ondorioak aurkeztuak izan dira Kanboko mediatekan, erakusketa baten bidez, apirilaren 25ean, erakasleak, burrasoak, haurrak, Kanboko Herriko Etxeko ordezkariak, Hezkunde Nazionaleko ikuskaria eta partaide guziak hor zaudelarik. Erakusketa tokian berean egon da aste osoan.

## ▣ HEZKUNTZA ARTISTIKO ETA KULTURALA 2005/2006

« Hezkuntza artistikoa eta kulturala » sailaren barnean Euskal kultur erakundeak kudeatu dituen proiektuak dira :

### Lehen mailako eskoletan :

#### Kanbon (4 proiektu)

EKEren elkarte partaidea : MIFEN

Proiektuaren izenburua : « Errobi mintzo »

Santa Maria eskola giristinoan, 2 proiektu - Kudeatzailea : Isabelle Ascarat

Errobi ikastola – Kudeatzailea Lilian Hirigoyen

Eskola publikoa – Kudeatzailea Joëlle Etchemendy

MIFEN elkarteko lankidea : Sophie Gansoinat

Euskal kultur erakundetik : Jakes Larre animazioentzat  
eta Terexa Lekumberri (euskarazko itzulpenentzat)

#### Maulen (4 proiektu)

Proiektuaren izenburua : « Maule gaineko soinuak »

Maule gaineko eskola publikoan

Ekeren elkarte partaidea : Herri Soinulariak

Artistak : Pierre Vissler eta Angélique Fulin

Eskolako irakasleak : Pascale Léchardoy, Jacqueline Mur, Alice Leiziaguezahar,  
Maite Aguer eta Jean-Michel Subercazes.

#### Irratigintza (2 proiektu).

EKEren elkarte partaidea : Erantzun

Ezpeletako eskola publikoan

Irakasle kudeatzailea : Xavier Harignordoquy - Animatzailea : Maitena Carment

Senpereko Zaldubi ikastolan

Irakasle kudeatzailea : Beronika Zamora - Animatzailea : Maitena Carment

### Kolegioan :

Donaixtikoko Manez Erdozaintzi-Etxart kolegioa

Irakurketa-Idazkera proiektua

Irakasle kudeatzailea : Maitena Diribarne

Hautatu idazlea : Aingeru Epaltza. Liburua : « Lur zabaletan ».

Marrazkilaria : Asisko Urmeneta.

### Lizeoan :

Baionako Bernat Etxepare lizeoan (bi proiektu)

❖ Olerkigintza

Kudeatzailea : Maite Bergara – Animatzailea : Auxtin Zamora

❖ Bertsularitza

Kudeatzailea : Gillermo Etxebarria – Animatzailea : Karlos Aizpurua

## ▣ Eskolatik kanpoko euskarazko aisialdiak

Euskararen Erakunde Publikoarekin finkatu bezala, Euskal kultur erakundeak segitzen du lanean orain arte euskarazko aisialdien lekuan ezartzeko kontaktuan zituen Herriko Etxeekin.

Eke-k tailer ezberdinen animaziorako kultura arartekolaritza segurtatzen du.

Herriko etxeak :

Hendaia : euskarazko 6 tailer asteazkenetan eta larunbat goizetan

Aldude-Banka-Urepele : antzerkia, hilabetean bi aldiz

Urruña : ohartze musikala eta euskal kantua (urtarriletik ekainera)

Angelu : Antzerkia, zirkoa, ohartze musikala eta euskal kantua ; aste bateko tailerrak otsaileko, udako eta omiasainduko bakantzetan.

## Animazioak denentzat

### ▣ « Xaharren urratsetik » : haur eta adinekoen arteko harremanak

Aturriko Caisse d'Epargne banketxearen diru laguntzari esker, Euskal kultur erakundeak belaunaldien arteko euskarazko topaketak antolatzen ditu.

2006ko larrazkenean, Donibane-Garaziko eskola publikoko haur elebidunak alde batetik eta ikastolako haurrak bestetik beraien ikastetxeetatik hurbil ziren hiru zahar etxetako adineko pertsona zenbaitzuen ikustera joan dira. Haurrek Luro fondazioko, Toki Ederreko eta Adindunen Egoitzako 11 pertsona elkarrizketatu dituzte beren haurtzaroari eta bizitzari buruz. Lan horren segidan, bildu materialarekin erakusketa bat (euskarazko bilduma, frantsesezko laburpena, argazkiak, marrazkiak) prestatu dute eskolan. Donibane-Garaziko herriko etxeari datxikola den erakusketa gelan erakutsia izan da 2006ko abenduaren 22tik 2007ko urtarrilaren 15era.

Adineko jendeei eginak izan zaizkien elkarrizketak bertan entzun dira baita Euskal Irratietan ere. Euskal kultur erakundearen web gunean daude bildurik ere eta oraindik entzungai ([www.eke.org](http://www.eke.org)).

Urte bukaeran, ekimen berri bat abiatu dugu Donibane-Lohizunen, Urdazuriko eskola publikoko haur elebidunekin eta ikastolakoekin. Kasu honetan errientek gai zehatz batzu nahi izan dituzte sakondu : 39-45eko gerla, Donibane-Lohizuneko garapena, itsasoari eta arrantzari lotu mundua, desagertu diren ofizioak, euskara.

## ▣ Batekmila : « HITZAK MINTZO » mintzaldiak

Euskal kultur erakundeak mintzaldiak antolatu ditu martxoan, lau asteartez segidan, arratsaldeko 6ak eta erditan. Uztaritzeko Lapurdi zentroko sala nagusian iragan dira. Hona hizlariak nor ziren eta zer aipatu duten:

- 7an : **Andoni Egaña** - *Ahozkotasunaz*
- 14ean : **Jean-Mixel Bedaxagar** – *Kantu hitzen gibelean zer gordetzen da ?*
- 21ean : **Kirmen Uribe** – *Ahozkotasuna eta poesia berria*
- 28an : **Lucien Etchezaharreta** – *Mende erdia iparraldeko literaturan.*  
*Zatien irakurleak : Kattalin totorika eta Miren Aranburu.*

## ▣ Hitzaditza / diktaketa lehiaketa

Berrikuntza : Euskal kultur erakundeak, AEKren eta Euskalzaindiaren partaidetzarekin, euskarazko diktaketa bat antolatu du maiatzaren 6an. Eneko Bidegain-ek eta Aurelia Arcocha-k idatzi dituzte testuak. 70 pertsonak hurbil parte hartu dute lehen edizioan.

## ▣ LITERATURA

### Kirmen Uriberen olerkiak frantseseratuak

Bordeleko Théâtre des Tafurs taldeak frantsesera itzuli euskal olerkari baten poemekin ikusgarri bat egin nahi zuela eta, Euskal kultur erakundeak erabaki du egitasmo horren Batekmila bere egitasmoan sartzea.

Euskal kultur erakundeak bere gain hartu ditu :

- ✚ frantseseko itzulpenaren gastuak (Kattalin Totorikak egin du lana) ;
- ✚ liburuaren argitalpenaren gastuetan parte du (Bègles hiriko argitaletxe batek plazaratu du liburua frantsesez eta euskaraz, eta « Bitartean, heldu eskutik » bilakatu da « Entre temps, donne-moi la main ») ;
- ✚ animazioak antolatu ditu : Kirmen Uriberen mintzaldi bat Uztaritzen, Kirmen Uribe eta Mikel Urdaingarín kantaria Biarritzeko mediatekan eta Théâtre des Tafurs taldearen ikusgarri bat Angeliko mediatekan, Translatines festibala denboran.

## ▣ Irakurketa tailerrak eta animazio kulturalak mediateketan

Idazle batzu etorri dira beren liburuaren aurkeztera Hazparneko, Kanboko, Angeluko, eta Amikuzeko mediateketara. Besteak beste : Jon Arretxe (honekin irakurketari buruzko lan berezi bat ereman dugu ere Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan), Eneko Bidegain, Nora Arbelbide, Gisèle Lougarot, Gaby Etchebarne, Marikita Tambourin, Piarres Ainciart, Juan Cruz Igerabide (topaketak antolatu ditugu ere Biarritzeko Fal kolegio elebiduneko ikasleekin, « Hosto gorri, Hosto berde » ikusgarriaren kariatara)

Bestalde, kultura animazio anitza proposatu du Eke-k Biarritzeko mediatekan, edo soilki euskaraz edo bi hizkuntzetan (euskara-frantsesa) :

- ✘ 2006ko apirilaren 8an : « Bizkaiko kopia zaharrak » Xabier Amuriza bertsolariak, bildu dituen Bizkaiko kantu edo kopia zaharrak eskaini ditu Mixel Ducauk gitarraz lagundurik
- ✘ 2006ko maiatzaren 13an : « Hitzak musikan » Animazio berri honentzat, Itxaro Bordak hautatu 30 bat olerki irakurtu dituzte Kattalin Totorikak, eta idazleak berak, Pantxix Bidartek gitarraz lagundurik. Artetik azken honek musikatuta dituen olerki batzu kanta ditu (Ohartaraz dezagun Donostiako Koldo Mixelena kultur zentroak sorkuntza hau programatu duela urrian euskal poesiari dedikatu aste berezian).
- ✘ 2006ko ekainaren 3an : *Bitartean Heldu Eskutik* Kirmen Uribe-ren olerki bildumaren aurkezpena, Mikel Urdangarin kantari-musikariaren laguntzarekin
- ✘ 2006ko irailaren 9an : « IRATZEDER, olerkiz-olerki » 22 olerki ilustratuen irakurketa Kattalin Sallaberry, Pantxoa Etchegoin eta Antton Hariñordoki-ren eskutik, Joël Mérah-ren gitarra doinuek lagundurik. Jakes Larre-k egin ditu ilustrazioak.
- ✘ 2006ko urriaren 21ean : Xiberoko kantuak. Jean Michel Bedaxagarrek euskal kantuak eskaini ditu a capella eta esplikatuta, kondaira moldean, zer gordetzen den hitzen gibelean.
- ✘ 2006ko azaroaren 25ean : Euskal eta Georgiar kantuak. Georgiatik itzuli ondoren, Maddi Oihenart, Céline Mounole, Kattalin Indaburu kantariak eta Philippe Albor musikariak beren errepertorioko kantu batzu baina bereziki Georgiako polifoniak eskaini dituzte.

## ▣ Animazio kulturalak Baionako ospitalean

(2004ko urtarrilan izenpetu hitzarmena gogoan)

Euskal kantu tailerra antolatu dugu Donibane-Lohizuneko Trikaldi eta Udazkena zahar etxeetan, kantu liburuxka bat egina izan da egoiliarrekin eta hauek parte hartu dute Begiraleak elkarteak apirilaren 23an antolatu euskal kantu egunean ; Bestalde, amaetxean, haur bat ukan duten familiei proposatu zaizkie azken opari kulturalak. Ehun bat euskarazko haur eta gazte liburu (Eusko Jaurlaritzak eskainirik) banatu ditugu ere zerbitzu ezberdinetan (Donibane Garaziko laguntza zentroan, Passerelles, Arc-en-Ciel, pedopsikiatريان, larrialdietan...).

## ▣ Animazio kulturalak BAB2 galeria nagusian

Bi hitzordu proposatuak izan dira urtean zehar : Udan, galeria nagusiaren animazioa trikitilariekin Baionako besten bezperan euskal kantuen liburuxka bat banatuz eta jendeak kantatzera gonbidatuz; Eguberri, Olentzeroren ibilaldiak eta ipui kondaketak dantzari-musikariek lagundurik. (Ohartaraz dezagun aitzineko urtean egin Olentzero erakusketak arrakasta ederra ukan duela. Ale bat egon da 15 egunez BAB2ko atsedean gunean, bigarren bat Biarritzeko ikastolan, gurasoek galdegini, hirugarren bat Baionako Lorezia saltegian, Hiruki elkartearekin antolatu animazioen kariatara eta azken bat Mauleko liburutegian, Ikas elkartearen partaidetzarekin).

## ▣ « Frantziako itzulia » Kanbon

Euskal herrian egin duen geldialdiaz baliatuz, EKE-k nahi izan ditu bisitariak euskal kulturari hurbilarazi, animazio ezberdinak proposatuz Kanbon, Herriko etxearen laguntzarekin :

- ✚ Mintzaldi diaporama bat Aitor Arotzena Ugalde, bizikletazale amorratuarekin. Honek bere ametsa bete du : hilabete batez, mendi bizikletan, Irundik abiatu eta Innsbruck eta Genevara joan da, Pirinioetako eta Alpeetako kasko gorenetan gaindi ibiliz.
- ✚ Kanboko itzulia txirindulaz bertsolariekin, gune historikoen eta kulturalen aitzinean geldituz. Hortan parte hartu dute bizikletaz ibiltzea maite duten 5 bertsolarik (Gurutxaga, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Igor Elortza) ; ondotik bertso saio bat antolatu dugu behereko plazan ;
- ✚ « Euskal herriko aurpegiak » ukipen pantaila ezarri dugu Frantziako itzuliaren eremuan, hiri-barnean, ekainaren 5etik uztailearen 13ra.

## ▣ Bi bertsulari-kantugile ohoretan lholdin

lholdiko herriko etxearen partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak kantaldi bat muntatu du herriko elizan, igande arratsalde, uztailearen 9an. Xedea zen iholdiarrek berek, Ernest Alkhat eta Charles Uhalde herriko semeen bertsuak kanta zitzaaten... lholdiarrek gogo onez onartu dute kantuz aritzea eta orotara 16 kantu eman dituzte herriko haurrek, adinetakoek, koralak, bai eta ere tokiko edo kanpoko kantari ezagun batzuek : André Gariador, Erramun Martikorena, Kattalin Indaburu, Miren Duhart. Eta kantaldi egunean, eliza mukurru bete da.

Kantaldi honen muntatzeko ideia sortu zen urte bat lehenago, Maiatz argitaletxeak Charles Uhalden bertsuak lholdiko herriko etxean publikoki aurkeztu zituelarik (Claude Mehats historialariak Ameriketara joanik bildu bertsuak). Aurkezpen horren kariatara, kantaldi baten muntatzea aipatu zen eta ideiak bere bidea segitu du...

## ▣ « Euskal Herriko aurpegiak »

Kanboko ur onen etxeko animatzaileak Frantzia guzitik heldu zaizkien egoiliarrei euskal kultura ezagutarazi nahi die. Hortarako EKE-ri galdegin dio ukipen pantaila uztea 3 astez heien erakusketa gelan. Momentu berean, hitzaldi bat egin dugu hizkuntzaz eta euskal kulturaz. Ber lana egina izan da Hazparneko laborantza apendizgoen formakuntza zentroarekin.

## ▣ Eskualde-arteko hizkuntza lankidetzak (Coopération linguistique interrégionale)

EKE-ren izenean, Pantxika Maitia-k parte hartu du Perpignan-en antolatutako « Rencontres des langues et cultures régionales » topaketetan, 2006ko azaroan.

## Ondarea

### ■ Etxea, kultura, nortasuna

Euskal etxe garaikideari buruz aspaldian abiatua duten gogoeta baten ildotik, EKE-k eta CAUE-k ekintza berezi batzu eraman dituzte partaidetzan 2006an. Besteak beste bi animazio azkar iragan dira urrian :

- Mintzaldi-eztabaida bat eta artista egonaldi bat Bastidan, urriaren 5, 6 eta 7an gai honen inguruan : Bizilekua... leku bizia ?. Urriaren 5eko mintzaldi-eztabaidak bizilekuari ematen den sentsuaz tratatu du. Bastidaren barne antolaketa eredutik abiatuz, mintzalariek galdera honi erantzutea saiatu dira : gure gaurko bizilekuak eta eraikuntza berriak nola izan daitezke bizikaltatearen eta harremanen sustatzaile ?
- Lau gogoeta tailerrek antolatutako izan dira, Bastidatik landa (ondoko 2 astetan) Kontseilu Orokorraren Baionako Ordezkaritzan, urriaren 10, 12, 17 eta 19an.. Tailer hauen helburua zen hautetsien, profesionalen eta etxea eginga edo egin gogo dutenen biltzea elgarrekin ikusteko, eraikuntza egitasmo bat abiatu edo ebaluatu behar dutenean, zein kriterio kondukan hartu behar lituzketen. Etxearen lau funtsezko dimentsio aztertutako izan dira : nola egokitu etxearen itxura barneko bizinari, nola koka etxea toki batean (auzo eta herri batean), kultura eta paisai batean, bai eta ere planetan (gaurko kezka ekologikoak kondukan hartuz)... Tailer bakoitzak 30 pertsona bildu ditu. Gogoetak luzamen bat ukanen du 2007an bixtandena, tailerretatik atera ondorioak euskarri pedagogiko batzuen bidez ikustera eman behar baigenituzke.

### ■ Euskal ondarearen batzorde iraunkorra

Erregulariki bildu da aurten ere gai desberdinak joratzeko : martxoaren leian Akitaniako eremu natural sentzibleak, maiatzaren 31an Angeluko Lazaret oihanaren bisita eta Ardanavy erreka -bazterren ezagutza, abendoaren 20an arkitekturen gaia...

Euskal ondarearen batzorde honen izenean, EKE-k parte hartu du ere CRPS izeneko Akitaniako batzordean (monumentu batzuen gerizatzea erabakitzen duena), bai eta ere CAUE-ko administrazio kontseiluan.

## ■ Sorkuntza eta ondarea

Euskal Museoaren Adixkideen elkarteak aldizkari berezi bat plazaratu du 2007ko abendoan, EKE-ren partaidetzarekin, «sorkuntza eta ondarea» gaiaren inguruan. Aldizkari honetan Euskal Herriko hanbat artista (antzerkilari, dantzari, edergailu egile, kantari, idazle, zizelkari, argazkilari, konpositore) mintzo dira ondareak beren sorkuntzan duen edo ez duen eraginaz.

Ale berezi honen aurkezpena abendoaren 3an iragan da, igandez, Euskal Erakustokian. Karia hortara 3 artistek (Beñat Achiary kantaria, Gaël Domenger dantzaria eta Guanés Etche-Garay zizelkaria) inprobisazio batzu eskaini dizkigute erakustokiko gune desberdinak baloratuz.

## ■ « Euskaldunen Argentina » erakusketaren inguruan

2006 urtean, «Euskaldunen Argentina» erakusketak egonaldi bat egin du Hazparneko mediatekan non mintzaldi bat antolatu dugun Claude Méhats historialariarekin. Mintzaldiaren artetik, Pantxix Bidart kantariak José Mendiague bertsolariak gaiaz utzi bertsu batzu kantatu ditu. Martxoan eta apirilan, erakusketa Xiberoan egon da (Argia kolegioan; Mauleko ondarearen etxean, Urdiñarbeko animazio zentroan). EKE baliatu da Urdiñarbeko egonaldiaz herrian eta auzo herrietan atxeman euskarazko gutunen inguruko gaualdi baten antolatzeke, tokiko Bil Xokua elkartearen partaidetzarekin. Uztailan, erakusketa Bardozen izan da Senpereko bidea hartu aitzin. Hemen kasik bi hilatetez egon da, azaroan eta abendoan. Urdiñarben egin genuen bezala, gutun irakurketa eta bertso gaualdi bat antolatu ditugu, herriko etxearen partaidetzarekin. Erakusketa mugitzen den aldi oro, EKE-k lekuan lekuko irakasleei bisita gidatu bat proposatzen die.

## ■ Telebista : « Destinations Aquitaine » emankizunean parte hartzea (TV7 Bordeaux)

Emankizun honen helburua da Akitania bordaleseri ezagutaraztea hilabetean behin, Akitaniako Kontseilua/ TV7 koprodukzioa). Emankizun horietarik bat Baxe-Nabarren egin nahi izan dute. Lehen partean, Pierre Oteiza (Aldudeko balea bere aktibitateekin) eta Terexa Lekumberri (EKE-rentzat, hil harrietaz, Irulegiko hilerrian hain xuxen) mintzatu dira. Filmatuak izan dira ekainean eta emankizuna irail erditsutan pasatu zen Bordaleko katean. Geroztik telebista hone webgunean ikus daiteke helbide honetan [www.tv7.com](http://www.tv7.com). Laster Akitaniako Kontseiluko webgunean ere agertuko da.

## Hedapena

### Kosta aldeko hiru hiriekin partaidetzan

Euskal kultur erakundeak proposamenak eginik, kostaldeko hiru herrik onartu dute partaidetzan lan egitea. Ekintza hauek obratuak izan dira :

#### DONIBANE LOHIZUNE

**EUSKAL KULTURA ARGITAN** - Bosgarren aldikoz, Donibane Lohizuneko kultura zerbitzuak eta Euskal kultur erakundeak aste bat antolatu dute :

 Otsailaren 12an, igandez, 16:30etan

Maurice Ravel salan

« **Azpitik gainera, ginetik behera** »

Dantza eta kantu ikusgarria, Claude Iruretagoyena zuzendari.

40 partehartzaile. Sei gertaldi jantzien bidez denboran gaindi bidaia ederra egiteko.

 Otsailaren 13an, astelehenez, 16:00etan

Abiatzea : Turismo Bulegotik

Lehen aldikotz **hiriaren bisita gidatua euskaraz!** Gidaria : Gaxuxa Elhorga. Bertsulariak : Gillen Hiribarren eta Mizel Mateo.

 Otsailaren 14ean, asteartez, egun osoan

Maurice Ravel salan

Euskal liburuaren eguna haurrentzat eta helduentzat.

11:00ean eta 15:00ean : **Ipuinaldia.**

Kondalariak : Kattalin Sallaberry eta Jokin Irungaray (oren erdiko saioa).

« Hurrekikus » elkarte partaide.

 Otsailaren 15ean, asteazkenez, 18:00etan

Maurice Ravel salan

**Mintzaldia frantsesez, Thierry Truffaut hizlari.** « Ederra eta itsusia Euskal Herriko ihauteri ohituran ».

« Donibaneko Batzokia » partaide.

 Otsailaren 16an, ostegunez, 18:00etan

Maurice Ravel salan

**Bi liburuen aurkezpena :**

« Azken apeza » - Piarres Aintziart - « Mahatsaren begia » - Eneko Bidegain

 Otsailaren 17an, ostiralez, 18:00etan

Maurice ravel salan

**Zinemaldia** – Lekeitioko Festibalean saristatu labor-metraiak.

« Oinarriak » elkarte partaide.

 Otsailaren 18an, larunbatez, 20:30tan

Jai-Alaian

« **Bidean zehar** ». Dantza kantatu ikusgarria. Parte hartzaileak : Anaiki gizon korua, Anaigazteak dantza konpainia eta Pikatxu musika taldea. Zuzendaritza artistikoa : Jean-Marie Guezala – Christian Larralde. Musika zuzendaritza : Patrick Larralde. Kontseilari artistikoa : Juan-Antonio Urbeltz.

 Otsailaren 19an, 16:30tan

Maurice Ravel

**Kontzertua : Pierpol Berzaitz eta bere 5 musikariak.**

 Otsailaren 14tik 19ra, Maurice Ravel salan

**ERAKUSKETA : « Irulea – La fileuse »**

20 maniki, argazkiak eta idazkiak.

Ramon Garcia – Iraultza elkarteko kolekzioak.

## HENDAIA

### Abbadia jauregiko kaperan

Euskal kultur erakundeak 2004an hasi « **Kaperan, a kapela - 4 saisons, 4 concerts** » sailaren segida. Partaide dituela Hendaiako hiria (Association culturelle hendayaise) eta Antoine d'Abbadia Fondazioa.

Martxoaren 17an, igande arratsaldeko 5etan :

Josu Martinez, Urko Menaia eta Kattalin Indaburu, « Mixel Labeguerie » Sariaren irabazleak.

Apirilaren 23an, igande arratsaldeko 5etan :

Xiberotar kantariak : Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Jean-Noël Pinque eta Robert Larrandaburu.

Urriaren 15ean, igande arratsaldeko 5etan :

Euskal Herriko eta Georgiako kantuak : Céline Mounole, Kattalin Indaburu, Maddi Oihénart eta Philippe Albor gitarra jotzailearekin.

Abenduaren 10ean, igande arratsaldeko 5etan :

Haurrock taldea – Maialen Negeloua – Camille Dizabo.

## BIDARTE

### Maite Barnetche zenari omenaldia

Bidarteko hiriak eta Euskal kultur erakundeak, FR3 Aquitaine katearekin partaidetzan, omenaldi abt eskainiko diote Maite Barnetche zenari, irailaren 22an.

Maite Barnetche hogeitaz arri izan da irrati eta telebista publikoan euskaraz (1966-1986). Ofizio eta mundu desberdinetako jende anitz galdezkatu zituen bere betiko irri goxoarekin. Utzi dizkigun emankizunak lekukotasun paregabeak dira.

Hona omenaldia nola iragan den : « Maite Barnetche biribilgunea » plakaren agertzea Ilbaritzen eta ondotik France 3 Euskal Herri Pays Basque kateak eskaini 35 minutuko filmaren aurkezpena eta euskaltzaleen lekukotasunak.

## **KULTUR TRUKAKETAK HEGO EUSKAL HERRIAN**

### **Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal kultur erakundearen artean izenpetu hitzarmenaren barnean**

*Euskal Jaurlaritzak eman diru laguntzari esker, hona ikusgarrigintzan eta animazio sailan eginak izan direnak :*

#### **AGURAIN/SALVATIERRA (Araba)**

*Kultur etxean*

Martxoaren 28tik 7ra : « Euskal Herriko aurpegiak » erakusketa  
Apirilak 6 : Daniel Landart iparraldeaz mintzo.

#### **ANDOAIN (Gipuzkoa) Urriaren 18tik 25era**

*Bastero kultur etxean*

18an, asteazkenez :

Mintzaldi-ezetabaida « Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak ».

Hizlariak : Erramun Bachoc, Terexa Lekunberri eta Jakes Larre.

20ean, ostiralez :

Rock kontzertua Izate eta Kauta taldeekin, bata Donibane Lohizunekoa bestea Andoaingoa.

21ean, larunbatez :

« Dantza piko » saioa, Patxi eta Konpaniarekin.

28an, asteazkenez :

Iparaldeko literaturaz Lucien Etxezaharreta mintzo.

Zatien irakurleak : Miren Aranburu eta Pantxika Maitia.

28an, larunbatez :

Andoaindarrak iparraldean.

Goizean, Baiona hiriaren bisita, eta arratsaldean, Otsozelaiko harpeena.

#### **AMURRIO (Araba)**

*Antzokian*

Martxoak 4 :

« Hartza iguzki » - Errobiko Kaskarotak taldearen ikusgarria

Maiatzak 20 :

« Xiberoa Amurrion » - Kantariak : Maddi Oihenart, Mixel Arotze, Jean-Mixel Bedaxagar, Jean Bordaxar eta lau musikari.

## **DONOSTIA (Gipuzkoa)**

*Koldo Mitxelena kulturunean*

Martxoak 9 :

Kontzertua :Mixel Etxekopar (flautak) – François Rossé (pianoa)

Martxoak 16 :

Mintzaldia : Piarres Xarriton : « Ene guduak ». Galdezkatzailea : Pantxo Etchegoin.

Martxoak 23 :

Kantaldia : PIL-PIL taldea. Baxenafartarrak kantari Alexandre, Bernadette eta Jojo Bordagaray kantuz, Mizel Thikoipe eta Philippe Albor gitarran

Martxoak 30 :

Kantaldia : Dominika eta Niko Etxart, aita semeak kantari.

## **GETXO (Bizkaia)**

**Urriaren 3tik 8ra**

3an, asteartez :

Haize Errota kolegioan : Xan Errotabehere ipuin kondalari (3 saio).

4an, asteazkenez :

San Nikolas kolegioan : Xan Errotabehere ipuin kondalari (3 saio).

The Piper's tabernan : Maialen Errotabehere kantari, Philippe Albor eta David Usabiaga musikariek.

5ean, ostegunez :

Iparraldeko literaturaz Lucien Etxezaharreta mintzo.

Zatien irakurleak : Miren Aranburu eta Pantxika Maitia.

6an, ostiralez :

Kontzertua eta kantu-afaria : Dominika eta Niko Etxart & Robert Larrandaburu.

7an, larunbatez :

Burrunka taldea (gaita eta perkusioak) – 12:00etan eta 18:00etan.

8an, igandez :

Herriko antzokian : « Batekmila » ikusgarria, (Théâtre du Rivage konpania, Beñat Achiary kantaria eta Gaël Domenger dantzaria).

## **SEGURA (Gipuzkoa)**

*Kultur etxean*

Martxoaren 20ean, astelelenez :

Iparr/Hegoa astearen barnean

Mintzaldi-etzabaida « Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak ».

Hizlariak : Erramun Bachoc, Terexa Lekunberri eta Jakes Larre.

## **TOLOSA (Gipuzkoa)**

*Verdura plazan*

Azaroak 12, igandez :

Xiberotar kantariak : Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Jean-Noël Pinque eta Robert Larrandaburu.

## INFORMAZIOA / KOMUNIKAZIOA

### 1. « eke.berriak » berripaperak

Lau zenbaki plazaratuak izan dira 2006an.

- ✘ eke.berriak (3. zenbakia) – martxoan : « Bat, biga, hiru » hiru lan egiteko eskoletan,
- ✘ eke.berriak (4. zenbakia) – maiatzean : « Euskal herrian bizi eta eraiki »,
- ✘ eke.berriak (5. zenbakia) – irailean : « Bizilekua... leku bizia ? »
- ✘ eke.berriak (6. zenbakia) – abendoan : « Elgarrekin bilaka » 2007-2013 kultura egitasmoa



## 2. www.eke.org ataria

### 2006/01/01etik 2007/01/01erako estatistikak

- 132.000 bisita
- 360 bisitari egunka
- Bisitarien heren batek usaia dut webgunera konektatzeko.
- Atal bisitatuenak : 1. Agenda 2. Euskara 3. Kultura
- Nabigatzaileen hizkuntz-hobespenak :
  - Frantsesa : %46
  - Gaztelera : %30
  - Ingelera : %6
  - Euskara : %4
  - Denetarik : %14

### Atariaren edukien eguneraketa

- ❖ 580 kultura gertakari aipatuak izan dira atariaren agendan, euskaraz eta frantsesez (hots 1160 artikulua labor orotara)
- ❖ Euskal kulturari buruzko 117 albiste idatziak izan dira (hots 234 albiste orotara)
- ❖ Agendako gertakarien baita kultura albisteen banaketa hedapen zerrenda baten bidez (asteroko bidalketa)
- ❖ Ata berrien estreina :
  - Euskal diasporari buruzko atal baten idekitzea. Euskal diasporaren atariarekin informazio trukaketak (<http://www.euskosare.org> – Esteka dinamikoak - RSS)
  - « Prentsa-bilduma» izeneko atal baten estreina, EKE sailean
- ❖ Multimedia eduki berezi batzuen ekoizpena :
  - Hitzaditza – Euskal diktaketa (2006ko maiatza) : euskarazko diktaketa sarearen bidez prestatzeko aukera
  - Bertsulari Tour Kanbon (2006ko uztaila) : Bertsularien ibilaldia eta jokoa
  - Zaharren Urratsetik programa Donibane-Garazin (2006ko abendua) : bizilekukotasunen « podcast »-a edo soinu-irakurgailua
  - Olentzero – Ikazkinaren istorioa (2006ko abendua) : Olentzero pertsonaiaren jatorriari buruzko bideoa

## **Blogak sarean, gaiez-gai**

Bitakora aplikazio librearen ezarpenari esker Euskal kultur erakundeak bere beharren araberrako blogak sor ditzake hemendik aitzina.

2006an sortu blogak :

- Euskal kulturaren geroaren inguruko bloga : <http://www.gogoetan.com>
- Georgian egin kultura trukaketen inguruko orrialdea: <http://georgia.eke.org>
- [www.eke.org](http://www.eke.org) extranetaren gida : <http://extranet.eke.org>

## **www.eke.org extranetaren inguruko animazioak**

Euskal kulturaren eragileek beren web orrialdeen sortzeko eta kudeatzeko parada badaukate [www.eke.org](http://www.eke.org) atariaren bitartez. Formakuntzak antolatutak dira horretarako 2006an, barnekaldeko ziberguneetan, Hazparnen, Izuran, Garazin eta Maulen.

### Egitaraua

- ▶ Artista edota elkarte baten fitxaren eguneratzeko urratsak.
- ▶ Gertakarien argitaratzea atariaren kultura agenda orokorrean.
- ▶ Blog batean sortzeko lehen urratsak [www.eke.org](http://www.eke.org) atarian

### Datak

- ▶ Urtarrilaren 21ean, larunbatez, Mauleko zibergunean, 9:00etatik 12:00etara
- ▶ Otsailaren 8an, asteazkenez, Hazparneko zibergunean, 9:00etatik 12:00etara
- ▶ Otsailaren 13an, astelehenez, Garaziko zibergunean, 14:00etatik 17:00etara
- ▶ Apirilaren 8an, larunbatez, Hazparneko zibergunean 9:00etatik 12:00etara
- ▶ Apirilaren 22an, larunbatez, Mauleko zibergunean, 9:00etatik 12:00etara
- ▶ Irailaren 20an, asteazkenez, Izurako zibergunean 14:00etatik 17:00etara
- ▶ Irailaren 23an, larunbatez, Hazparneko Elgar zentroko zibergunean 9:00etatik 12:00etara
- ▶ Irailaren 30ean, larunbatez, Mauleko zibergunean 9:00etatik 12:00etara

Formakuntza horiek dohainik izan dira. Europako Erkidegoak egitasmoa lagundu du Leader + programaren barnean. Parte-hartzaileen kopurua : 35.

## **www.eke.org extranetari buruzko auto-ikaskuntza CD-ROMa**

Euskal kultur erakundeak auto-ikaskuntzarako CD-ROM bat argitaratu du kultur elkarteek eta artistek beren informazioak interneten argitaraz ditzaten eke.org atariaren bitartez.

CD-ROMa elebiduna da eta ondoko ezaugarriak ditu :

- ✚ 30 bideo-erakuspenez osatua da. Erabilzaileak egiten jakin behar duena deskribatzen du hala nola agendako gertakari bat nola sortu, eragile fitxa bat nola eguneratu, irudiak edota dokumentuak nola txertatu e.a.
- ✚ Extranet-gida bat eskuragarri dago PDF formatuan. Bideo-erakuspenetan aipatzen diren gaiak sakontzen ditu
- ✚ Lotura bat egina da extranetaren erabiltzaileen blogarekin zeinetan bakoitzaren galderak eta duda-mudak komentatzen diren
- ✚ Noiznahi harremanetan sar daiteke zuzenean Euskal kultur erakundeko bitartekariekin Kontaktugune bat baliatuz.

CD-ROMa dohainik zabaldu da. Europako Erkidegoak egitasmoa lagundu du Leader + programaren barnean.

Actions propres  
de l'Institut culturel basque

*Version française*

## Spectacle vivant

### CREATION – ECHANGES CULTURELS

#### **Création « Hosto gorri hosto berde » : aide à la reprise et sensibilisation**

Collège FAL de Biarritz - Salle Les Faisans Béhobie 2 – 23 mars 2006

Mise en scène et en musique dans un langage contemporain de la poésie de Juan - Kruz Igerabide.

Actions de sensibilisation en milieu scolaire auprès des élèves bilingues de 4ème du collège FAL en présence de l'auteur, Miren Aranburu (interprète) et Jean-Louis Hargous (musicien).

Aide à la reprise du spectacle avec le conseil en mise en scène de Guy Labadens du Théâtre des Chimères.

*Partenariat : Collège FAL – Association Distira*

#### **Résidence « Habiter et construire en Pays Basque »**

La Bastide Clairence – 29 et 30 mai - 4 au 7 octobre 2006

Afin de prolonger la réflexion menée par l'Institut Culturel Basque et le CAUE concernant l'habitat et l'architecture en Pays Basque, il a été proposé à des artistes du collectif Les Imprévisibles (Bordeaux) et du Pays Basque d'interroger à leur tour cette problématique.

Le village de La Bastide–Clairence a été investi par un groupe de sept artistes (musiciens, danseurs et bertsulari) au cours d'une résidence dans le village. Des rencontres avec les habitants et des élèves du Lycée Cantau ont eu lieu.

Le projet s'est décliné comme suit :

- Conférence « Habiter, une question de sens. » - Salle Inessa de Gaxen  
5 octobre
- **Performance itinérante dans le village - Samedi 7 octobre**  
Création artistique unique en résonance avec les lieux du village.
- Exposition – Maison Darrieux - Samedi 7 octobre  
Croquis des artistes et relevés topographiques des lieux par les élèves d'Arts Appliqués et de la section Topographie du Lycée Cantau.

*Partenariat : CAUE – Mairie de La Bastide Clairence – Lycée Cantau*

### **Formation aux polyphonies géorgiennes et création d'un répertoire original**

Saint Palais – 3, 4 et 5 juillet 2006

Suite du projet d'échanges avec la Géorgie impliquant les chanteuses Maddi Oihenart, Céline Mounole, Kattalin Indaburu, Philippe Albor ainsi que des membres de divers chœurs d'Amikuze.

Les chanteuses et des membres de chorales, des élèves d'école de musique d'Amikuze ont suivi une formation aux polyphonies géorgiennes avec Craig Schaffer, membre de l'Ensemble Marani qui se consacre à l'étude et à la transmission du riche répertoire des polyphonies géorgiennes depuis 1993.

Les chanteuses ont travaillé à l'élaboration d'un répertoire composé de polyphonies géorgiennes, de leurs propres interprétations et de chants traditionnels basques à trois voix inspiré des techniques du chant géorgien.

Les chanteuses ont présenté ce répertoire en septembre en Géorgie et au Pays Basque.

*Partenariat : Scène de Pays Basse Navarre (Garazikus – Elgarri) - Association Marani*

### **Accompagnement de la création « Kautera » du Tokia Théâtre**

Mauléon – 4, 5 et 6 septembre

Accompagnement de la création Kautera à travers un stage de formation et de conseil pour la mise en œuvre d'éléments pyrotechniques.

### **Vidéo clip et intervention du groupe de hip hop MAK au Lycée Bernat Etxepare**

Suivi de la création vidéo en vue de promouvoir le 2e album du groupe.

Accompagnement sur la base du clip vidéo d'une création lycéenne présentée au prochain Festival des lycéens à Bordeaux.

*Partenariat : Lycée B. Etxepare*

## **DIFFUSION**

### **« Biharko » CD- DVD entre Pays Basque et Sao Tome – présentation à Elkar**

Bayonne – 14 février

Entre 2002 et 2005, des musiciens de la Compagnie Lagunarte et de Sao Tomé et Príncipe se sont rencontrés, à trois reprises, sur l'île de Sao Tomé et au Pays Basque.

« Biharko », un coffret CD et DVD relate cette aventure.

*Partenariat : Musiques de nuit diffusion*

**« Hosto gorri hosto berde » de Jean-Louis Hargous et Miren Aranburu**

Biarritz – 25 mars

Mise en scène et en musique dans un langage contemporain de la poésie de Juan Kruz Igerabide. Spectacle programmé au Colisée dans le cadre du festival « Bi harriz Lau xori »

*Partenariat : Biarritz Culture*

**Anari – Gari – DJ Makala – Atabal – 5 mai**

Concert de musiques amplifiées de groupes de la Communauté Autonome du Pays Basque.

*Partenariat : Atabal Scène de musiques actuelles de Biarritz*

**Cie Le Jabron Rouge et Agnès Cerlot – Gernika – 20 mai**

Spectacle jeune public « Super Seme » au Théâtre Elai Alai.

*Partenariat : Centre culturel Gernika - Garazikus*

**« Harilka, du fil à la pâte » - Association Dariola – Koldo Amestoy**

Scène Nationale de Bayonne et du Sud Aquitain - 13 et 14 juin

Spectacle associant l'art du musicien, du dessinateur, du lissier, du parfumeur, du chocolatier avec celui du conteur est un parcours filant un récit illustré de contes et de légendes mayas, aztèques et basques.

Deux représentations, une en basque et l'autre en français.

*Partenariat : Scène Nationale de Bayonne et du Sud Aquitain*

